



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2018ko maiatzaren 29a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:15 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:25

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldúa Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Danbolin musika eskolaren 2018-19 ikasturteko tarifak eta tasak murrizteko araudia..
- 2.- Onartzea, egoki bada, ahateen parkea mantentzearen arduradunak ematen dituen zerbitzuen baldintzak.
- 3.- Atxikitzea, egoki bada, ORIOKO GURE ESKU DAGO elkarteak aurkeztutako adierazpen instituzionalari.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO DANBOLIN MUSIKA ESKOLAREN 2018-19 IKASTURTEKO TARIFAK ETA TASAK MURRIZTEKO ARAUDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2018ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2018-2019 ikasturterako Danbolin Musika Eskolako tarifei eta matrikula tasak murrizteko araudiari, segidan azaltzen diren terminoetan:

4.3. Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak

2018-19 ikasturtean aplikatuko diren tarifak honako hauek izango dira:

Tarifa bakarrak:

Euroak

<i>a) Musika mintzaira ikasleko (2. maila).....</i>	<i>244</i>
<i>b) Instrumentu ikasgaia ikasleko (2. eta 3. mailan).....</i>	<i>356</i>
<i>c) Musika tailerra ikasleko (1. mailan).....</i>	<i>178</i>



d) Ikasketa osagarriak (3. mailan).....	244
e) Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan).....	641
f) Euskal dantza ikasleko.....	244
g) Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero).....	244
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda).....	114
i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan).....	65
j) Instrumentu taldea ikasleko.....	70
k) Instrumentu taldea ikasleko (beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero)	Doan

HOBARIAK 2018-19 IKASTURTEKO TASETAN

BALDINTZAK:

Goian adierazitako tarifaren zergadunek hobariak izango dituzte, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) zuzenean lotuta eta bi zirkunstantzia hauekin ponderatuta:

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonen kopurua.
- Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren kopurua, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin alderatuta.

Hori guztia, honako taula honen arabera:

	Urteko soldata, Lanbide arteko Soldata Minimoarekiko erlazioan						
Familia-unitatearen kide kopurua	LSM edo <	LSM + %10	LSM + %20	LSM + %30	LSM + %40	LSM + %50	LSM + %60
1-2	%90	%75	%50	%25	--	--	--
3	%90	%90	%75	%50	%25	--	--
4	%95	%90	%90	%75	%50	%25	--



5	%95	%90	%90	%90	%75	%50	%25
6	%95	%90	%90	%90	%90	%75	%50
7...	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75

Hobariak eskatzeko alde zureko baldintzak hauek dira:

1.- Orion erroldatuta egotea 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.

2.- Udalarekin zorrik ez izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- *Nortasun-agiriaren kopia.*
- *Familia-liburuaren kopia.*
- *Errenta-aitorpenaren kopia (kide aktibo guztiena)*
- *Errola-agiria.*
- *Elkarbizitza-agiria.*

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araruaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.



Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AHATEEN PARKEA MANTENTZEAREN ARDURADUNAK EMATEN DITUEN ZERBITZUEN BALDINTZAK.

Udalbatzarrak ahateen parkea mantentzearen arduradunak aurkeztu duen proposamenaren berri jasotzen du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2018ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA ahateen parkea mantentzearen ardura CARLOS BARBA ALVAREZek hartzea, honako baldintzetan:

- Hileko 400 euroko diru-saria jasoko du.
- Istripuetako aseguru-poliza bat egingo zaio. Poliza horren prima urteko 74,60 eurokoa da.

3.- ATXIKITZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GURE ESKU DAGO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

ORIOKO HERRIARI

Euskal herritarrok bidegurutze batean gaude: hegoaldeetik datozen haize atzerakoiak ditugu alde batean, eta demokrazian oinarritutako ziklo berri bat bestean. Zein bide hobesten dugun argi adieraziko dugu ekainaren 10eko giza katean. Erronkari heltzeko prest gaude. Erabakira iritsi arte lan egiteko daukagun determinazioa erabatekoa da. Etorkizun hobe batean sinesten dugulako, ziklo berria zabaltzeko mugarria jartzera goaz. Mugarri hori urrunago edo hurbilago jarri, gure esku dago. Herritarron esku.

Egungo marko juridiko-politikoak ezartzen dituen oztopoak nahikoa ez eta egungo markoa are eta murriztagoa nahi dutenek gure erakundeak jo puntuan jarri dituzte, herritar denon oinarritzko eskubideak urratzeko inolako erreparorik gabe.



Katalunian aplikatu du Espainiako estatuak aurrenekoz 155. artikulua, baina Euskal Herrian ere aplikatu dezake. Ez dezagun ahaztu. Orain arte gatazka politikoa zena, erronka demokratiko bihurtzea lortu behar dugu.

Argi dugu, epe luzerako elkarbizitza bermatzeko ezinbesteko baldintza dela erabakitzeko eskubidea gauzatzea. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitze bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen defentsan elkarri eskua ematea. Hain justu, ekainaren 10eko giza kateak balio behar du adierazteko herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asmo eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Halaber, etorkizuna elkarrekin eraikitze borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztipoak gainditzea eta urrutira iristea.

Euskal Herritarrok erabakitzeko eskubidea gauzatzeko ditugun milaka arrazoiak biltzen dihardu Gure Esku Dagok; horixe baita, finean, Herritarron Ituna. Erabakitzeko arrazoen bilduma; herritarren behar, ilusio, asmo eta zergatiak jasoko dituen bilduma zabala. Eta zertarako arrazoi bilketa hori? Bada, arrazoi horiei guztiei demokratikoki bide emateko, eta horretarako behar diren tresnak eta adostasun esparruak elkarrekin eraikitze. 'Herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarron garaia da' leloetatik abiatuz, erabakitzeko eskubidea edukiz beteko dugu. Etorkizunean elkarrekin eraiki behar dugun herriari eta gizarte ereduari buruz abiatu beharreko eztabaida zabalari ekarpena egin nahi dio egitasmoak.

Abiapuntu gisa, 2.019 arrazoi biltzeko asmoa dugu, 2019. urtea dugulako jomugan. Esparru anitzetan, gizarte mailan, erakundeetan, zein nazioartean egiten ari diren urrats guztiek bat eginda, datorren urtean erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezkeela sinesten dugu. Euskal Herritarrok nolako etorkizuna nahi dugun irudikatu eta eztabaidatzen hasteko unea da.

Ziur gaude erabakitzeko arrazoen bilketak lagunduko digula ikustarazten nola gauden herri gisa, eta ohartarazten zein diren gure beharrak eta gure mugak. Herri gisako erronkak eta lehentasunak zehaztu eta erabakitzeko eskubidea gauzatzeko modua adosteko unea iritsiko da orduan. Denon artean heldu beharreko erronka, eragile politiko eta sozialek eta herritarrok elkarrekin osatu beharrekoa. Horixe da GEdek aipatzen duen Herri Ituna. Eztabaida, ekarpen, proposamen eta adostasunaren bidez eraikiko dugun tresna dinamikoa izango da.

Erabakitzeko eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Gauzatzeko ibilbidea elkarrekin adostea dagokigu orain. Eta hori guztion ardura da. Herri bezala jarduteko garaia da. Elkarrekin. Ezin baitugu aukera historiko hau galdu. Ezin gara geldirik geratu. Gure garaia da. Herritarrona. Determinazio osoz goaz aurrera, herritar burujabeak eraikiko dugun herri burujabera. Jende zoriontsua



ORIOK OUDALA



izan nahi dugulako, herri libre batean. Ekainaren 10ean eman diezaiogun eskua etorkizunari!

Erabakitzeke eskubidea dugu! Erabakitzeke milaka arrazoi ditugu! Adostu dezagun bidea elkarrekin

Guzti honengatik, Orioko Udalari eskatzen diogu, bat egin dezala GURE ESKU DAGOK antolatzen dituen ekimenetan eta luza diezaiola herri guztiari EKAINAK 10ean egingo den GIZA KATEAN parte hartzeko deialdia bertaratzeko izena emanaz, egun hauetan zehar horretarako jarriko diren mahaietara agertuaz.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA ORIOKO GURE ESKU DAGO elkarteak aurkeztutako adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta hiru gairi buruz galdetzen dio alkateari:

1.- Lur azpiko edukiontziak egokitzeko obren lizitazio publikoan izandako atzerapena (ia urtebetekoa). Alkateak erantzuten dio esanez falta den bakarra dela baldintza-orri ekonomiko-administratiboak osatzea, hainbat kontu jasota (lizitazioaren prezioa, obrak exekutatzeke epea, enpresa-sailkapena eta unitate-prezioen zerrenda). Hori guztia aste honen bukaerarako prest egongo da eta orduan sartuko da beharrezko dokumentazio guztia kontratazio publikorako plataforma elektronikoan.

2.- Autokarabanentzako gunek bat egokitzeko izandako atzerapena (ia urtebetekoa). Alkateak erantzuten dio esanez egia dela gaia poliki garatzen ari dela, baina egia dela, baita ere, Obra eta Zerbitzuetako batzordearen burua gogor ari dela saiatzen kontu horrekin eta, horretarako, bideragarritasun-txostenak eskatu dizkiela bai BIDEGIri eta bai Eusko Jaurlaritzako Portuetako Zuzendaritzari, autokarabanentzako gunek hori autopista azpian kokatzeko. Alkateak dio espero duela txosten horiek laster iritsiko direla eta, beraz nabarmentzen du gaia ez dagoela geldirik.

Gai hori dela-eta, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSO Eren izenean, eta galdetzen du ea zer egin behar den udalerriko hainbat tokitan instalatuta dauden autokarabanekin eta adierazten du faltan bilatzen duela Udaleko mugikortasuneko buruaren txostena, herrian autokarabanen instalazioa behar bezala arautzeko.



3.- Udal idazkariak Udalaren 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz egindako txostena. Emeteriok dio txosten hori egin zenetik hilabete eta erdira jaso dutela eta, bertan jasotzen denez, hutsune nabarmenak daudela aurrekontuaren atal batzuen garapenean. Alkateak erantzuten dio esanez datorren ostiralean, ekainak 1, egingo dela Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileko bilkura eta bertan emango duela gaiari buruzko informazio zehatza.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSO Eren izenean, eta bi galdera egiten dizkio alkateari:

1.- Ea aurtengo udan txu-txu trenaren zerbitzua iritsiko den Anibarko Portura, bizilagunak eskatzen ari diren bezala. Alkateak erantzuten dio esanez gai hori Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailean aztertuko dela. Nolanahi ere, adierazten du zerbitzuak bi gidari behar dituela; trenak IAT/ITV proba pasatu berri duela; eta txu-txu trenaren udal arduradunak esan diola komeni dela trenaren geltoki bat ezartzea Ibai Ondo 10 portalaren parean, Anibarko Portuko bizilagunentzat, arriskutsua delako trenak CN-634 errepidetik joatea Anibarko Porturaino, kontuan hartuta txu-txu trenaren zerbitzua ez dela bidaiarien garraio urbanorako zerbitzu bat.

2.- Ea zertan den udalbatzarrak grabatzeko proposamenaren gaia. Alkateak erantzuten dio esanez udal idazkariak kontsultatu behar duela ea zertan eragiten dion gai horri datu-babeseko araudi berriak, maiatzaren 25ean indarrean jarri berri dena; eta, beraz, horren zain dagoela.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN taldearen izenean, eta alkateari galdetzen dio ea aste honetan egingo ote den Hirigintza batzorde informatzaileko bilkurarik. Alkateak erantzuten dio esanez datorren ostiralean, ekainak 1, Ogasun, Pertsonal eta Kalitate batzordeko bilkura egingo dela 09:30ean eta, egun berean, Hirigintza eta Ingurumeneko batzordeko bilkura egingo dela, 11:30ean.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerak bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,